

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak eta Iruñerriko Mankomunitateak garraioko txartel bakarra ezartzea bilatzen dute

Helburu horrekin, Zarraluqui kontseilariak eta MCoko lehendakari José Muñozek lankidetzeta-protokolo bat sinatu dute

Jueves, 11 de junio de 2015

Nafarroako Gobernuaren jarduneko Sustapen kontseilari Luis Zarraluquik eta Iruñerriko Mankomunitateko lehendakari José Muñozek protokolo bat sinatu dute Foru Komunitateko Bidaierien Hiriarteko Garraio Publikoko Plan Integrala garatze aldera. Protokolo horretan azpimarratzen denez, bi erakundeak elkarlanean ariko dira garraioko txartel bakarra ezartzeko, hiriarteko nahiz hiriko garraiorako baliozkoa izango dena. Alde horretatik, datorren udazkenean erabili beharreko txartelaren analisiaren eta bilakaeraren gaineko azterketa bat lizitatuko da.



Zarraluqui kontseilaria eta MCoko lehendakari José Muñoz, akordioa sinatzen.

Protokoloan adierazten denez, beharrezkotzat jotzen da Mankomunitateko garraio-tituluak ordaintzeko sistemak ordainketa-era bateratu batera eboluziona dezan, garraiorako txartel bakarra izanik. Horretarako, ibilbide-orri bat egingo da, eta bertan ordainketa bateratuaren sistema sortzeko egin beharreko ekintzak jasoko dira; hala, garraioko operatzaile guztiek onartu ahalko dute, bai eta tartean dauden administrazio guztiek ere. Prozesua hasiko da, alde batetik, Iruñerriko Mankomunitatean egun erabilitako ordainketa-sistemaren aprobetxamendu-azterketarekin, eta bestetik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako herritarren txartelarenarekin, eskualdeko garraioan ere ordaintzeko erabiltzen dena.

Beste esperientzia batzuk ere aztertuko dira, Bizkaian abian jarritakoa, adibidez (Barik); horri esker, zerbitzu (hirikoa eta hiriartekoa) eta modu (autobusa, trena eta metroa) ezberdinetako tarifak integratzeko politika garatu ahal izan da; horrenbestez, garraio publikoa sustatu eta hobetu ahal izan da. Gipuzkoan abiarazitakoa ere aztertuko da (Mugi), eta Barik txartelak bezala Bizkaian, hiriko nahiz hiriarteko garraio publikoaren erabilera sustatzea eta suspertzea lortu duena; haien titularrak udalak eta Aldundia izaten jarraitzen dute, hurrenez hurren. Joera hori da Espainiako

eskualde gehienetan aplikatzen dena, esaterako: Andaluziako hiri nagusietako Metropoli Garraioko Partzuergoaren ordainketa-sistema; Asturiasko Garraio Partzuergoaren ordainketa-sistema edo, beste maila batean, Bartzelonako eremuko Autoritat del Transport Metropolità-ren anbizio handiko proiektua.

Nafarroako Gobernuak eta Mankomunitateak ordaintzeko eran edo beste edozein mailatan garatuko diren proiektu teknologikoei buruzko informazioa trukatu dute, garrantzitsutzat jotzen diren proiektuak garraioko sareetan emandako zerbitzuak hobetze aldera.

Iruñerriko udalerrietako hiriarteko garraio-zerbitzuaren plangintzari dagokionez (eskualdeko hiri-garraioaren eremuan sartu gabekoak), bai eta dentsitate txikiko gunen horretako garraio-aukeren azterketari dagokionez ere, Departamentuak eta Mankomunitateak beharrezko informazioa lortzeko elkarlanean ariko dira, eskualdeko hiriarteko errepideetan bidaiariak arautzeko garraio erregularren garraio-zerbitzua planifikatzeko aldera; hori guztia, gunen horretan dauden beste garraio-zerbitzu batzuk kontuan hartuz. Lan horiek, besteak beste, partaidetza publikoko prozeduretan oinarrituko dira.

Sustapen Departamentuari dagokio planifikatutako zerbitzuak onartzea. Onartu aurretik, Sustapenak Mankomunitateari proposamen bat igorriko dio ekarpenak egin ahal ditzan.

Foru Komunitateko Administrazioaren hiru ordezkariak eta Iruñerriko Mankomunitateko beste hiruk osatutako batzordea sortuko da; batzorde hori urtean bi aldiz bilduko da gutxienez burututako lanen jarraipena egiteko eta beharrezkotzat jotzen diren guztietan aurrera egiteko. Batzordearen lehen bilkuran beharrezkoak diren behar adina talde tekniko osatuko dira.